

EL CENTRO NAVARRO DE CREACIÓN  
**EL PUNTO GUNEA NAFARROAKO SORMEN ZENTROA**



El Punto Gunea-ko taldeak Sorkuntza Egoitzen laugarren deialdia aurkeztu du.  
Sormena sustatuz, hazten jarraitzen dugu.

Aurten lau modalitate aurkeztu ditugu, azkena berria izanik. Pertsona edo talde bakoitzeko proiektu bakarra aurkeztu ahalko da eta modalitate bakarrean parte hartzeko aukera izango du.

### *Zirku modalitatea*

Egoitza hau ikerketa-lana egin nahi duten artista edo zirku garaikideko konpainia profesionalentzat dago zuzenduta. Artista hauen lana aretoan zein kalean egin daiteke.

### *Hautzaroa eta gaztaroa modalitatea*

6 urtetik gorako haurrentzat edota gazteentzat ikuskizunak ekoizteko ikerketa-ideia bat duten artistei, taldeei eta konpainiei zuzenduta dago egoitza hau. Helburua: publiko horrentzat ikuskizunen ikerketa sustatzea, antzerkia balioetan oinarritutako hezkuntza transmititzeko tresna gisa ulertuz. Bereziki, proiektuaren kalitate artistikoa eta landu nahi diren hezkuntza eta gizarte balioak baloratuko dira.

### *Lanzadera modalitatea*

Sortzen ari diren konpainien proiektuak aukeratzeko helburua du modalitate honek, profesional gisa euren lehen ikuskizuna aurrera eramateko asmoz. Proposamenak edozein publiko eta diziplina eszenikori zuzenduta egon daitezke. Ez dira erakusketa-lanak kontuan hartuko.

Modalitate honetan hautatutako proiektua El Punto Gunea-ko taldeak aukeratuko du. Hamar hilabetez aholkularitza eskainiko zaio talde irabazleari bere jarduera profesionala abian jarri ahal izateko (jarraipena administrazio eta zerga arloetan, finantzaketa bilatzeko laguntza eta aholkularitza, laguntza ekoizpen zein teknika-lanetan...).

Lankidetzan, ahal den neurrian, hautatutako proposamenera egokituko da. Modalitate honek ez du diru-laguntzarik, hala ere, finantzaketa bilatzen lan egingo da egoitzak irauten duen bitartean. Proiektuak irauten duen bitartean taldeak lanerako espazioak erabilgarri izango ditu, El Punto Gunea-k eskainitako guztiaren aprobetxamendua baloratuko da eta hautatutako proiektuak lan egiteko jarrerarik erakusten ez badu, laguntza bertan behera geratuko da.

### *Dramagintza modalitatea*

Egoitza hau haur zein gazteei zuzendutako literatur testu bat idazteko interesa duten gazteei zuzenduta dago. Horretarako, prozesuan zehar hainbat antzerkigileren laguntza izango dute, euren esperientziatik eta tutoretza ezberdinen bidez, lehen urrats horietan beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko diete.

EL CENTRO NAVARRO DE CREACIÓN  
**EL PUNTO GUNEA NAFARROAKO SORMEN ZENTROA**



**OINARRIAK: Zirku Modalitatea**

**1.- Nori zuzendua? :**

Egoitza hau ikerketa-lana egin nahi duten artista edo zirku garaikideko konpainia profesionalentzat dago zuzenduta. Artista hauen lana aretoan zein kalean egin daiteke.

**2.- Lanaren aurkezpena:**

Lanak formatu digitalean aurkeztuko dira. Talde edo artista bakoitzak txosten bat aurkeztuko du, bertan hurrengo puntuak bilduko dira:

- Proposamen eszenikoaren sinopsia, fitxa artistikoa eta teknikoa, eta proposamen artistikoa baloratzeko aukera eman ditzakeen informazio oro.
- Datu pertsonalak eta ibilbide profesionala (labur azalduta).

**3.- Irabazleak hautatzeko irizpideak eta garapena:**

Hautaketa egiteko irizpideak hurrengoak izango dira:

- Proposatutako proiektuaren merezimendu artistikoa, aurkeztutako dokumentazioa baloratuz eta originaltasuna, berrikuntza, esperientzia eta kalitate artistikoa kontuan hartuz.
- Proiektuaren bideragarritasuna / logistika Punto Gunean dagoen bitartean, proiektuaren beharrak kontuan hartuko dira egoitzak irauten duen bitartean.

Proiektuen jarduerak edota erakusketak amaitu eta bidezko eztabaidak egin ondoren, epaimahaikideek deialdiaren ebazpenari buruzko erabakia hartuko dute.

**4.- Beka / diru-laguntza:**

Hautatutako proiektuak 2.000 euro jasoko ditu. Ekarpen ekonomiko hori proiektua aurrera eramateko erabiliko da soilik eta gastu guztiak behar bezala justifikatu beharko dira. Egoitzaren iraupena lau astekoa izango da.

**5.- Epaimahaia:**

Deialdi honen erabakia hainbat diziplina eta arte eszenikoetako epaimahai profesional batek hartuko du.

**6.- Prozedura:**

Interesdunek lehiaketan izena emateko inprimakia bete beharko dute eta [info@elpuntogunea.com](mailto:info@elpuntogunea.com) helbidera bidali, 2022ko irailaren 30a baino lehen, ebazpena urrian publikatuko da.

EL CENTRO NAVARRO DE CREACIÓN  
**EL PUNTO GUNEA NAFARROAKO SORMEN ZENTROA**



**OINARRIAK: Haurtzaroa eta gaztaroa modalitatea**

***1.- Nori zuzendua? :***

6 urtetik gorako haurrentzako edota gazteentzako ikuskizunak ekoizteko ikerketa-ideia bat duten artistei, kolektiboari eta konpainiei zuzenduta dago egoitza hau.

Helburua: publiko horientzako ikuskizunak sortzea, antzerkia balioetan hezteko eta lan egiteko tresna gisa erabiltzeko. Bereziki proiektuaren kalitate artistikoa eta landu nahi diren hezkuntza eta gizarte balioak baloratuko dira.

Kolektibo edo artista batek gauzatzen duen edozein proiektuk parte hartu ahal izango du, baldin eta lengoia eszenikoekin eta mugimenduan dauden arteekin lotutako lana egiten badu.

***2.- Lanaren aurkezpena:***

Lanak formatu digitalean aurkeztuko dira. Talde edo artista bakoitzak txosten bat aurkeztuko du, bertan hurrengo puntuak bilduko dira:

- Proposamen eszenikoaren sinopsia, fitxa artistikoa eta teknikoa, eta proposamen artistikoa baloratzeko aukera eman ditzakeen informazio oro.
- Datu pertsonalak eta ibilbide profesionala (labur azalduta).

***3.- Irabazleak hautatzeko irizpideak eta garapena:***

Hautaketa egiteko irizpideak hurrengoak izango dira:

- Proposatutako proiektuaren merezimendu artistikoa, aurkeztutako dokumentazioa baloratuz eta originaltasuna, berrikuntza, esperimendazioa eta kalitate artistikoa kontuan hartuz.
- Proiektuaren bideragarritasuna / logistika Punto Gunean dagoen bitartean, proiektuaren beharrak kontuan hartuko dira egoitzak irauten duen bitartean.
- Baloratuko da: Proiektuaren kalitate artistikoaz gain, harekin landu nahi diren hezkuntza eta gizarte balioak.

Proiektuen jarduerak edota erakusketak amaitu eta bidezko eztabaidak egin ondoren, epaimahaikideek deialdiaren ebazpenari buruzko erabakia hartuko dute.

EL CENTRO NAVARRO DE CREACIÓN  
**EL PUNTO GUNEA NAFARROAKO SORMEN ZENTROA**



**4.- Beka /diru-laguntza:**

Hautatutako proiektuak 2.000 euro jasoko ditu (zergak barne) eta egoitzaren iraupena lau astekoa izango da.

Ekarpen ekonomiko hori proiektua aurrera eramateko erabiliko da soilik eta gastu guztiak behar bezala justifikatu beharko dira.

**5.- Epaimahaia:**

Deialdi honen erabakia hainbat diziplina eta arte eszenikoetako epaimahai profesional batek hartuko du.

**6.- Prozedura:**

Interesdunek lehiaketan izena emateko inprimakia bete beharko dute eta [info@elpuntogunea.com](mailto:info@elpuntogunea.com) helbidera bidali, 2022ko irailaren 30a baino lehen, ebazpena urrian publikatuko da.

EL CENTRO NAVARRO DE CREACIÓN  
**EL PUNTO GUNEA NAFARROAKO SORMEN ZENTROA**



**OINARRIAK: *Lanzadera modalitatea***

**1.- *Nori zuzendua?***

Sortzen ari diren konpainien proiektuak aukeratzeko helburua du modalitate honek, profesional gisa euren lehen ikuskizuna aurrera eramateko asmoz. Proposamenak edozein publiko eta diziplina eszenikori zuzenduta egon daitezke. Ez dira erakusketa-lanak kontuan hartuko.

**2.- *Lanaren aurkezpena:***

Lanak formatu digitalean aurkeztuko dira. Talde edo artista bakoitzak txosten bat aurkeztuko du, bertan hurrengo puntuak bilduko dira:

- Proposamen eszenikoaren sinopsia, fitxa artistikoa eta teknikoa, eta proposamen artistikoa baloratzeko aukera eman ditzakeen informazio oro.
- Datu pertsonalak eta ibilbide profesionala (labur azalduta).

**3.- *Irabazleak hautatzeko irizpideak eta garapena:***

Hautaketa egiteko irizpideak hurrengoak izango dira:

- Proposatutako proiektuaren merezimendu artistikoa, aurkeztutako dokumentazioa baloratuz eta originaltasuna, berrikuntza, esperientzia eta kalitate artistikoa kontuan hartuz.
- Proiektuaren bideragarritasuna / logistika Punto Gunean dagoen bitartean, proiektuaren beharrak kontuan hartuko dira egoitzak irauten duen bitartean.

Proiektuen jarduerak edota erakusketak amaitu eta bidezko eztabaidak egin ondoren, epaimahaikideek deialdiaren ebazpenari buruzko erabakia hartuko dute.

**4.- *Beka / diru-laguntza:***

Modalitate honek **ez du diru-laguntzarik**. El Punto Guneak bestelako laguntzak eskainiko ditu (hasieran azaldu direnak), horien aprobetxamendua egiten ez bada egoitza bertan behera utziko da. Beraz, lan taldeak lanerako jarrera erakustea ezinbestekoa izango da. Egoitzaren iraupena hamar hilabetekoa izango da.

**5.- *Epaimahaia:***

Modalitate honetan hautatutako proiektua El Punto Gunea-ko taldeak aukeratuko du.

**6.- *Prozedura:***

Interesdunek lehiaketan izena emateko inprimakia bete beharko dute eta [info@elpuntogunea.com](mailto:info@elpuntogunea.com) helbidera bidali, 2022ko irailaren 30a baino lehen, ebazpena urrian publikatuko da.

EL CENTRO NAVARRO DE CREACIÓN  
**EL PUNTO GUNEA NAFARROAKO SORMEN ZENTROA**



**OINARRIAK: *Dramagintza modalitatea***

**1.- *Nori zuzendua?* :**

Egoitza hau haur zein gazteei (35 urte, gehienez) zuzendutako literatur testu bat idazteko interesa duten gazteei zuzenduta dago. Horretarako, prozesuan zehar hainbat antzerkigileren laguntza izango dute, euren esperientziatik eta tutoretza ezberdinen bidez, lehen urrats horietan beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko dute.

**2.- *Lanaren aurkezpena:***

Lanak formatu digitalean aurkeztuko dira. Talde edo artista bakoitzak txosten bat aurkeztuko du, bertan hurrengo puntuak bilduko dira:

- Sinopsia
- Egitura
- Pertsonai nagusien deskribapena
- Tratamendu estilistiko zein linguistikoa
- Informazio gehiagarria (behar izatekotan) eta erreferentziak (intereseko antzezlanak)
- Datu pertsonalak eta ibilbide profesionala (labur azalduta)

Dossierraren gehieneko luzera: 8-10 orrialde.

**3.- *Irabazleak hautatzeko irizpideak eta garapena:***

Hautaketa egiteko irizpideak hurrengoak izango dira:

- Proposatutako proiektuaren merezimendu artistikoa, aurkeztutako dokumentazioa baloratuz eta originaltasuna, berrikuntza, esperimentazioa eta kalitate artistikoa kontuan hartuz.
- Proiektuaren bideragarritasuna / logistika Punto Gunean dagoen bitartean, proiektuaren beharrak kontuan hartuko dira egoitzak irauten duen bitartean.

Proiektuen jarduerak edota erakusketak amaitu eta bidezko eztabaidak egin ondoren, epaimahaikideek deialdiaren ebazpenari buruzko erabakia hartuko dute. Bi pertsona izango dira hautatuak (batak egoitza erdaraz egingo du, besteak euskeraz).

**4. - *Beka / diru-laguntza:***

Hautatutako proiektuak **500 euroko** diru-laguntza jasoko du, zergak barne. Horrez gain, antzerkigile baten tutoretzak jasoko ditu. Egoitzak **hamar hilabeteko iraupena** izango du.

Ekarpen ekonomiko hori proiektua aurrera eramateko erabiliko da soilik eta gastu guztiak behar bezala justifikatu beharko dira.

**5.- *Epaimahaia:***

Deialdi honen erabakia antzerkigile profesionalen osatutako epaimahai batek hartuko du. Erabakia apelaezina izango da.

**6.- *Prozedura:***

Interesdunek lehiaketan izena emateko inprimakia bete beharko dute eta [info@elpuntogunea.com](mailto:info@elpuntogunea.com) helbidera bidali, 2022ko irailaren 30a baino lehen, ebazpena urrian publikatuko da.

EL CENTRO NAVARRO DE CREACIÓN  
**EL PUNTO GUNEA NAFARROAKO SORMEN ZENTROA**



Gogoan izan izen-ematea baliozkoa izan dadin formularioren eremu guztiak bete behar direla, nahitaez.

## **IZENA EMATEKO FITXA**

MODALITATEA:

IZENA:

ABIZENAK:

NAN:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

AURKEZTUTAKO AGIRIAK:

Dokumentazio guztia bidaltzeko helbidea:  
**info@puntogunea.com**

Informazio gehiago:  
**www.elpuntogunea.com**

Telefonoa:  
**669 796 347**